**Gordexolako Udala**
Ayuntamiento de Gordexola

## AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Nazio Batuetako Biltzar Nagusiak azaroaren 25a “Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna” izendatu zuen. Egun hori dela eta, Gordexolako Udalaren osoko bilkurak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistaren agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira. Era berean ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Gure ustez, premiazkoa da helburu horrek lehentasunezko eta etengabeko tokia izatea bizitza kolektiboa antolatu eta kudeatzeko ardura duen edozein erakunde publikoren eguneroko jardun politikoan.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, ezpada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jarduera oldarkor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso – zuzenean edo zeharka- emakumeen osotasunari, askatasunari eta gizatasunari. Beharbada, indarkeria matxistaren alde ikusgarriena emakumeen hilketak dira baina ezin dugu ahaztu gure gizartean erroturik beste indarkeria mota batzuk daudela. Zoritzarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten emakumeek jarritako salaketen egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.

Ordezkari politikoak izanda daukagun erantzukizuna kontuan hartuta, gure gain hartzen dugu bizitza eremu guztietan berdintasunezko harremanetan oinarriturik dagoen gizartea eraikitzeko.

Honengatik guztiagatik, Gordexolako Udalak, honako konpromisoak hartuko ditu:

- Etxeko indarkeriaren eta sexu indarkeriaren eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeenganako arretan hobetze aldera, arreta erakunde artean

## DECLARACION INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

Con motivo del 25 de noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de las Naciones Unidas como “Día internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres” , el Ayuntamiento de Gordexola en pleno muestra su firme repulsa a todas las expresiones de violencia sexista, que son fruto de la desigualdad existente entre mujeres y hombres. Del mismo modo, entendemos que la necesidad de profundizar en el acuerdo y compromiso político y ciudadano para poder caminar hacia espacios de vida en común, libres de violencia machista, debe estar presente de manera urgente, prioritaria y permanente en la agenda política de cualquier institución pública responsable de organizar y gestionar la vida colectiva.

Las agresiones y los comportamientos sexistas no son conductas aisladas de algunos individuos, sino que son parte de un sistema, vigente en todo el mundo, que hace posible el ejercicio de la violencia contra las mujeres desde la infancia y a lo largo de toda su vida. Son prácticas violentas y machistas de diverso alcance, pero todas atentan- directa o indirectamente- contra la integridad, libertad y capacidad de las mujeres. Desgraciadamente, todavía se detectan en la sociedad muchas actitudes y comportamientos que permiten y legitiman las agresiones a las mujeres. Quizá la cara más visible de la violencia machista sean los feminicidios, pero no debemos olvidar que existen otros tipos de violencia más enraízada en nuestra sociedad, e incluso tolerada de alguna manera, como son las agresiones verbales, económicas, institucionales,… Incluso, actitudes detectadas en la sociedad que permiten y legitiman las agresiones (físicas y sexuales) hacia las mujeres, como el cuestionamiento de la veracidad de las denuncias interpuestas por mujeres que han sufrido agresiones, las declaraciones públicas hechas desde los espacios de poder que vienen a banalizar y justificar esa violencia mientras le quitan importancia, o el tratamiento frívolo y sensacionalista que algunos medios de comunicación hacen de la misma, entre otros.

Desde nuestra responsabilidad como representantes políticos asumimos nuestro compromiso en la tarea de construir una sociedad basada en las relaciones igualitarias en todos los ámbitos de la vida.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Gordexola en pleno se compromete a:

- A trabajar en el desarrollo del protocolo local de actuación y coordinación institucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas del maltrato en el

koordinatzeko Enkarterriko udal protokoloa garatzeko lan egitea, etxeko indarkeriaren eta sexu indarkeriaren eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeenganako arretan zerikusi zuzena duten udal edo eta eskualde baliabideen arteko koordinazioa hobetzea, osasun, polizia eta gizarte arloetan babes eta arreta osoa bermatzeko.

- Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta giza baliabideak indartuz.

- Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.

- Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere, horien bidez hausnarketarako espazioak sortuz.

- Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, hala nola, enpoderamendu eskolak eta emakumeen etxeak, eta sare lana sustatu.

- Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, landa guneetakoak, aniztasun funtzionala dutenak, eta abar. Hezkuntza eta gazteria arloekin indarrak metatzen saiatu.

- Beldur barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.

Era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

Azkenik, gonbit egiten die gordexolar guztiei, azaroaren 25ean “Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna” dela-eta izango diren ekitaldietan parte hartzera.

ámbito doméstico y violencia sexual de Enkarterri, mejorando la coordinación entre los recursos municipales y/o comarcales implicados directamente en la asistencia a las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y violencia sexual con el fin de garantizarles una protección y atención integral en sus vertientes sanitarias, policial y social.

- Mantener y reforzar el compromiso con las políticas de Igualdad, mediante el fortalecimiento de recursos económicos y humanos destinados al desarrollo de políticas de igualdad.

-Erigirse como agente activo en la prevención y denuncia de acciones y manifestaciones machistas en el municipio.

- Activar, ampliar y/o reforzar los procesos participativos que promueven la participación igualitaria de las mujeres en los rituales simbólicos y festivos, así como en los diversos espacios socio-culturales; creando así espacios de reflexión.

-Crear y/o fortalecer con recursos los espacios comunes destinados a promover el empoderamiento de las mujeres, como las escuelas de empoderamiento, casas de las mujeres y su articulación en red.

- Apoyar con recursos técnicos y económicos procesos de trabajo institucionales dirigidos a la prevención de la violencia machista que enfrentan las mujeres en ámbitos más vulnerables: jóvenes, mayores, migrantes, rurales, diversidad funcional,… procurando sumar fuerzas con otras áreas como Educación y Juventud.

- Desarrollar los contenidos del programa Beldur Barik como herramienta para trabajar en sensibilización y prevención de la violencia machista con la juventud.

Además invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad entre mujeres y hombres, incluido el rechazo a cualquier manifestación de violencia o discriminación sexista.

Asimismo, anima a todas y todos los ciudadanos de Gordexola a participar en los diferentes actos convocados con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la violencia hacia las Mujeres”.